



Emakumearen Eguna aldarrikatu nahi dute hainbat ekitaldirekin

BERDINTASUNA ▶ Balizko berdintasuna lortu arte antolatzen dituzte ekitaldiak

SAIOAK ▶ Bazkari-afariak, xake, antzerkia, bilkurak, antzerkia, hitzaldiak...

HERRIAK ▶ Eskualdeko 18 herritan antolatu dute ekitaldiren bat ▶ 2




Joseba Otaegik aise irabazi eta Unai Otañok galdu egin du aizkoran

BIDEGOIAN ▶ Herenegun jokatu ziren Urrezko Aizkoraren kanporaketak bakarka. Joseba Otaegi zizurkildarrak aise irabazi eta aurrera jarraituko du. Unai Otañok ibartarrak berriz, zorte txarra izan zuen, bi adar tokatu zitzaizkiolako. IMANOL GARCIA ▶ 5

LEITZA ▶

Futbol partidua ez zen jokatu elurragatik ▶ 7



Batxilergoa

- Giza eta Gizarte Zientziak
- Natura eta Osasun Zientziak

Lanbide Zikloak

Ziklo ertainak	Goi mailako cikloak
<ul style="list-style-type: none"> Merkataritza Teknikaria Administrazio-Kudeaketa Informatika Sistemien Ustapena 	<ul style="list-style-type: none"> Informatika Sistemien Administrazioa Informatika Aplikazioen Garapena Idazkaritza Administrazioa eta Finantza Merkataritza-Kudeaketa eta Marketina Nazioarteko Merkataritza



Nazaret zentroa

Jardunaldi irekiak Nazaret zentroan:

Martxoak 11	Ostirala	18:00 etan.
Martxoak 12	Larunbata	11:00 etan.

gizarte elkartz
obra sozial

Nazaret zentroa • Aldeberri, 36 • 9. egia • 48912 (0945)114
91 90 20000 • fax 91 913094 • e-mail nazaret@nazaretzentroa.com • www.nazaretzentroa.com

EMAKUMEAREN EGUNA ▶

Balizko berdintasuna lortu arte

Gaur, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, ekitaldi ugari izango da

NOELIA LATABURU

Hamaika ekitaldi antolatuta da eskualdeko hainbat herritan, Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira. Zenbaitetan asteburuan hasi ziren emakumearen aldeko aldarrikapenak egiten, Tolosan, Berastegin, Berrobin eta Gaztelun, besteak beste.

Abaltzisketa. Bazkaria egingo dute gaur Larraitzen, Nafarri jatetxean, 13:30ean.

Aduna. Gaur kontzentrazioa plazan 20:00etan, gizonen eta

emakumeen arteko berdintasuna eskatzeko.

Alegia. Gaur Kultur Etxean, 16:00etan, Katxalin bular minbiziarekin kaltetutako emakumeen elkartearen hitzaldia izango da.

Alkiza. Etzi *Emakume bat eta K2*, Edurne Pasabanen proiektioa izango da 22:00etan Kultur Etxean.

Alto. Gaur afaria Zuloaga Txikin. 20:30ean Altzoko plazatik irtengo dira. Larunbatean Teresa Lopez de Munianen baka-



Larunbatean emakumeen aldeko bilkura egin zuten Tolosan. N.LATABURU

rrizketa 16:00etan Ertotxen, *Ugaztun baten nahia* izenpean.

Anoeta-Irura. Gaur xake erakustaldia helduentzat, Irurako Gazte Alaiak elkartearen, 17:00etatik 19:00etara. Etzi, afaria Gazte Alaiak elkartearen.

Baliarrain. Larunbatean afaria izango da Zartagi jatetxean 21:00etan. Izena emateko azken eguna, bihar udaletxean.

Berastegi. Gaur Xabier Arra-

laren autoestimari buruzko hitzaldia 17:00etan eskolan.

Gaztelu. Gaur emakumearen omenezko afaria 21:30ean tabernan, herriko gizonen sukaldatuta eta zerbitzatuta.

Elduain. Gaur Julian Bereziartuaren *Automedikazioaren arriskuak, txertoak, medikuntza alternatiboa* izeneko hitzaldia izango da 17:00etan Kontzeju tabernan. Ondoren pintxo dastaketa.

Ibarra. Etzi *Libertarias* filma Gaztetxean, 21:30ean. Larunbatean, bertso bazkaria Sendi Ekintza elkartearen, 14:00etan, Amaia Agirre, Nerea Elustondo eta Naiara Arreseigorrerekin.

Ikaztegieta. *8 mujeres* filma ostiralean 20:00etan liburutegian. Ondoren, solasaldia *Harreramanetako dependentzia menpekotasun mota* izenpean.

Leaburu-Txarama. Otazu sargardotegian afaria 20:00etan.

Tolosa. Gaur 20:15ean Hiru bideak taldearen *Gertakariak* antzezlan, Kultur Etxean.

Ugarte. Gaur bazkaria Ugarteko elkartearen 14:00etan.

Zizurkil. Gaur eskulan taldearen eta *Negarra min* erakusketaren inaugurazioa 19:00etan Atxulondo kultur etxean. Bihar eta etzi pertsonen arteko komunikazioa eta asertibitate tailerra Nerea Zuazuarekin, 19:00etatik 21:00etara. 12an *Pakita* antzezlan 19:00etan Kultur Etxean; igandean irteera Aragoi eta Nafarroara.

IRITZIA ▶ AINHOA LARREA (ZIZURKILGO UDALDEKO KULTUR TEKNIKARIA)

Noiz arte?

Noiz arte jarraituko dugu Emakumearen Eguna ospatzen? Akaso, ospakizunik handiena egun hau ospatzeari uzten diogunean iritsiko da, baina bitartean gure horretan jarraituko dugu, egunero pauso txikiak ematen baititugu emakumeok gure egoera hobetu eta gizonaren parekoa izatera iritsi dadin.

Aurtengoan, Zizurkilgo Udalak ekin-

tza mordoan antolatuta du, herriko adin guztietako emakumeengana iritsi nahirik. Emakumeak izango dira protagonista martxoaren 8tik 12ra Zizurkilen eta emakumeari buruz hitz egingo da herrian. Emakume bakoitzak altxor bat izan ohi du barruan, gizabanako bakoitzak bezala, eta martxoaren 8an urtean zehar egindako lan artistikoak erakusgai jarriko dituzte Atxulondo kultur

etxean. Martxoaren 9 eta 10ean, berriz, emakumeek erlazioatzeko dituzten erreztasun eta zailtasunak jorratuko dira Nerea Zuazua psikologoaren laguntzarekin. Gai hagitza dago hausnarketa bat baino gehiago merezi duenak eta, gehienetan, emakumeok ez dugu denbora hori hartzen. Egun hauek aitzaiki paregabea izaten dira horretarako.

Eta asteari amaiera emateko, ekitaldi ludikoetan parte hartzeko deia egin nahi diegu emakume guztiei, gure aisiaz gozatzen ikasi beharra baitugu ere. Ostiralean antzerkera joateko parada izango dugu eta larunbatean egun pasa egingo dugu Aragoi eta Nafarroan barrena. Helburuak: ondo pasa eta gure ardurak ordu batzuz alde batera uztea. Lortzen den heinean, ez dira helburu makalak. Ea laister Emakumearen Eguna ospatzeari uzten diogun...

iragarki laburrak ▶



San Francisco etorb. 47- beheko
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: enio@inmoenio.com
www.inmoenio.com

Alegia. San Joan kalean 161 m²-ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.

Anoeta. 60 m²-ko etxebizitza salgai. Logela, egongela, sukalde, bainugela. berokuntzarekin. 192.325 euro.

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trastelekua eta garajearekin.

Donostia. Sagues auzoan etxebizitza salgai igogailuarekin. Eguzkitsua.

Ibarra. Eraikuntza berriko bi logelako etxebizitza salgai. Garajea aukeran.

Ibarra. San Inazio auzoan etxebizitza berokuntzarekin.

Ikaztegieta. Sei etxe abikiren eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

Irura. Ibai aldera. 3 logela eta bi bainugela. trastelekua eta garajearekin. Ezin hobeto.

Irura. Borda ikusgarria, ikusteko modukoa!

Legorreta. Pisu merkea, 3 logelarekin, sukalde, egongela eta bainugela (berritua). Berokuntza. 142.440 euro!

Tolosalde. Eraikuntza berriko bi bizitzako etxebizitza zoragarria salgai. Porxe eta lorategiarekin. Ikusgarria!

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat

etxebizitza salgai 142.440 eurotik aurrera.

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Tolosa. Amaro auzoan oso egoera onean dauden etxebizitzak eta berritzeko daudenak salgai.

Tolosa. Belate. Hiru logela eta bi bainugela. Berritua.

Tolosa. Erdialdean azkeneko pisua terraza ederrekin. Aukera paregabea!

Tolosa. Erdialdean. 130 m²-ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua). Estreinatzeko, guztiz berritua izan ondoren.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza. Ikustekoa!

Tolosa. Nafarroa etorbidean guztiz berritutako 3 logelako etxebizitza salgai berokuntzarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

Tolosa. Iurre. Bi logela, sukalde, egongela, bainugela. Oso egoera onean.

Tolosa. Larramendi. Orain dela gutxioko eraikuntza. Bi logela, sukalde, egongela eta trastelekua. Berokuntza. Ezin hobeto.

Tolosa. Larramendi. 3 logela, egongela, sukalde berritua. 2 bainugela. Igogailua.

Tolosa. Santa Klara, 111 m²-ko etxebizitza ederra, igogailuarekin, 4 logela, egongela, sukalde, bainugela. Ikuspegi ederra. 228.385 euro.

Tolosa. Agintari kalea. Eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukalde eta bainugela.

Trastelekua eta berokuntzarekin.

Tolosa. Trinketen. Hiru logela bi bainugela eta egongela ederra. Ezin hobeto!

Tolosa. Zumalakarregi. Toki ezinhobean. Ibai aldera bistak. 105 m²-ko etxebizitza. Guztiz berritua.

Tolosa. Pablosantzioko ibiltokian 46 m²-ko lokal komertziala.

Tolosa. Erdialdean oso ondo kokatua dagoen taberna salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidean garajea alokairuan.

Villabona. Larrea auzoan eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

Zizurkil. Ennio Bidea. Eraikuntza berria. 3 logela, egongela, sukalde, 2 bainugela. Trastelekua pisuan eta ganbaran. Ezin hobeto!

EUSKARA ▶

Webguneak diruz laguntzeko oinarriak aurkeztu ditu Udalak

Euskaraz sortutako web orriak edota gaztelaniazkoak euskaratzeko proiektuak diruz laguntzeko oinarriak prest dira; 3.000 euro emango ditu Udalak

LEIRE MONTES

Euskarazko webguneak diruz laguntzeko emateko oinarriak aurkeztu ditu Udaleko Euskara eta Hezkuntza batzordeak. «Euskaraz sortu edota gaztelaniaz sortuta dauden webguneak euskaratzeko proiektuak» lagunduko ditu Udalak, eta ez orrien mantenua. Aurten, ekainaren 30ean amaituko da eskaerak egiteko epea: «Denbora utzi nahi du batzordeak, nahi duenak, euskaraz sortu edota euskara dezan bere webguneak». «Kultur, kirol, aisialdi, enpresa, merkataritza, ostalaritza eta, oro har, publiko zabalari interesgarri gerta dakizkikeen informazioa eta edukia, euskaraz eta informazio teknologien bidez hedatzeko laguntza ematea» du helburu ekimenak. Beti ere «euskararentzat garrantzitsua den erabilera esparruan bertako eta berezko hizkuntzak leku oparoa izan dezan» oinarritzat harturik.

Eskatzaileak. Aipatutako esparruetan proiektu edota informazioa sustatu eta aurrera eramaten dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoek jaso ahal izango dute diruz laguntza, egoitza soziala eta fiskala Tolosan baldin badute.

Baldintzak.

▶ Edukiak oso-osorik euskaraz izango dira gutxiarik; honek ez du eragozten beste hizkuntzetan ere izatea.



Ekainaren 30a arte egin daitezke eskaerak, udaltxean. L. MONTES

- ▶ Hizkuntzaren kalitatea eta zuzentasuna ezinbestekoak dira.
- ▶ Elikatzea: bisita kopurua, kalitatea zein erabilgarritasuna eguneratzea.
- ▶ Edukietan legetan babes-tutako gairik badago, eskatzaileak eduki horien gaineko baimenaren jabe izan behar du.
- ▶ Webgunea egina izatea diruz eskaera egiterako, eta eskaera orrian helbidea jartzea, Udalak ikuskatu ahal izateko.

Baztertzekak.

- ▶ Webgune pertsonalak.
- ▶ Edozein eratako edo mailatako irakaskuntza erakundeei lotutako guneak.
- ▶ Edozein herri erakunderi lotutako enpresa, talde, elkarte eta abarretako guneak.
- ▶ Eduki iraingarria edota pertsonen eskubideen aurkakoak dutenak.
- ▶ Edukietara sartzeko edonolako mugakizuna jartzen dutenak edo zerbitzuaren trukean

ordainketa eskatzen duten web orriak.

- ▶ Diruz laguntzak duen helbururako lehendik diruz laguntzak jaso dutenak.

Eskaerak aurkeztea. Eskaera inprimakia, egoki beteta, Udaleko Euskara eta Hezkuntza departamentura helarazi behar da, ekainaren 30a baino lehen. Agiri hauek aurkeztu behar dira:

- ▶ Gastuen jatorrizko ziurtagiriak edo horien fotokopia konpultsatuak.
- ▶ Diruz lagundutako jardueraren oroitidazkia.
- ▶ Diruz kontuen balantzea.

Diruz laguntza emateko kontuan hartuko direnak.

- ▶ Gunearen edukia etengabe eguneratzeko jarriko diren bitartekoak.
- ▶ Forma eta diseinu aldetik landua izatea, argia eta erabilerraza.
- ▶ Hainbat maila eta eratako

ezintasunak dituztenentzat aproposa izatea.

- ▶ Software askea erabiltzea.

Balorazio batzordea. Udaleko informatika zerbitzuak teknikariak, Udaleko IKHA zerbitzuko teknikariak eta Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeko kideak osatuko dute balorazio batzordea. Kanpoko adituen iritzia ere eskatu ahal izango dute. Ebazpen proposamena egingo diote Udal Gobernu Batzarrari, hark behin betiko erabakia har dezan.

Diruz laguntzen zenbatekoa.

3.000 euro. Eskatzaile bakoitzari, gehienez, webgunea euskaraz egiteak izan duen kostuaren %50 emango zaio, 600 euroko muga pasatu gabe. Bestalde, emandako diruz laguntzak, eskura ditzakeen beste diruz laguntzekin batera, ezingo du egindako inbertsioaren kopurua gainditu. Horretarako, beste laguntzarik jaso edo ez jaso izanaren aitortpena aurkeztu beharko du eskatzaileak.

Ordainketa. Eskaera aurkeztu eta baldintzak betetzen dituenari bi hilabeteko epean helaraziko zaio Gobernu Batzarrak ontzat jotako diruz laguntza.

Ebazpena emateko epea. Bi hilabete, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita. Epe hori amaitu eta ebazpenik eman ez bada, eskatutakoa ukatu egin dela ulertuko da.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- Anoetalde.** Medikua: 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 69 24 23
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarralde.** Osasun etx.: 672411
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 00 68 00
 - ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 - ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 - ▶ DYA: 67 25 36
 - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 - ▶ Ertzaintza: 53 88 20
- Villabona-Aiztondo.** Anbulatorioa: 00 69 70
- Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

GARRIAOK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Taxia: 67 04 20
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
- ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Santa Maria, I. Nafarroa etorb. 2 (Tolosa). 943 65 46 10
Larraia, M.I. Elbarren, 95 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetalde. 687 41 00 22
anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarralde. 687 41 00 32.
ibarralde@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA
Zute ileapaindegia.
Esperientzia handia duen neska edo mutila behar da. Asteartetik ostiralera, 10:00-18:00; larunbatetan, 09:00-14:00. Telefonoa: 943 67 19 34.
Zerbitzaria eta sukaldaria.
Tolosan zerbitzari bat eta sukaldari bat behar da asteburuetarako. Deitu 635 70 05 59ra.
Igeltseritzako ofiziala. Mutil bat behar da, igeltseritzako ofiziala 2. mailakoa. Deitu 615 74 86 61era.

MENDIA ▶

Lleidako Pirinioetara Oargirekin

Oargi mendi elkarteak mendi marxa antolatuko du Aste Santuko oporraldietan. Boi bailaran (Lleidako Pirinioak, Herrialde Katalanak) zenbait mendi igo eta ibilalditxoak egingo dituzte, hilaren 24tik 28ra bitartean. Interesa duenak lehenbailehen izena ematea eskatu dute elkarte-koek. Horretarako 637 830 380 telefono zenbakira deitu behar da.

AISIALDIA ▶

Baloreak hizpide, Kirikiño aisialdi taldeak deituta

Kirikiño aisialdi taldeak formakuntza eguna egingo du hilaren 13an, igandea. Gurasoei zuzendutako hitzaldia antolatuko du egun horretan. Ramon Alzate Euskal Herriko Unibertsitateko psikologia irakasleak *Nola hezi baloretan gaurko gizartea* solasaldia eskainiko du, 09:00etatik 13:30era, Hirukide Eskolapietan. Hamaiketakoa, meza eta bazkaria ere izango dira.

ERLIJIOA ▶

Garizumako hitzaldiak Santa Maria parrokan

Pazko bidean, Jesusen jarraitzaile lelopean, Garizumako hitzaldiak egiten ari dira egunotan Santa Maria parrokan. *Nik maitatu zaituztedan bezala, maita zuek ere elkar* (Jn 13, 1-35) testua izango dute gaur hizpide. Maria Jesus Amundarain monja amezketarrak bideratuko du saioa. 16:00etan eta 20:00etan izango da, euskaraz, parrokiako areto nagusian.

KORRIKA ▶

Korrika Laguntzaile egiteko aukera

Korrika Laguntzaile egin nahi duenak Tolosan bertan ere badu horretarako aukera. Raku, Elurra eta Laier tabernetara eta Kopi Bat dendara jo daiteke horretarako. 12 eurotan, pina eta txartela jasoko dute laguntzaileek. Euskal Herriko 300 saltoki eta bestelakoetan beherapean izango dituzte. Etxi, hilaren 10ean, abiatuko da Korrika, Orreagatik.

ADUNA ▶

Korrikaren aldeko afaria Txulobi elkarte

Muxkil elkarteak Korrika 14rekin bat eginez afaria antolatu du larunbat honetarako, 20:30ean, Txulobi elkartearen. Txiste kontalaria ere izango da bertan. Afarirako txartelak Uztartza tabernan jarriko dira salgai lehenengo 40 laguntzat. Izena emateko epea, osteguna arte.

ANOETA ▶

Ludotekan eta Xakearen Txokoa irekia

Udalak Pazko Asteko ludoteka antolatu du, hilaren 29tik apirilaren 1era, 11:00etatik 13:00etara. Ikastolan egingo da eta HH1etik DBH4rako ikasleei zuzenduta dago. Izen ematea martxoaren 11 arte, udaletxean. Bestalde, Xakearen Txokoa apirilaren 7tik maiatzaren 20ra egingo da. Izen ematea martxoaren 11 baino lehen Anoetako Ikastolan edo udaletxean. Kostua bost eurokoa izango da.

ANOETA ▶

Bilera irekia festa alternatiboak antolatzen

Bilera irekia egingo da bihar, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, festa alternatiboak antolatzen asmoz. Udaletxean izango den bilera herritar guztiak gonbidatzen dituzte antolatzaileek.

VILLABONA ▶

Artziniegatik Bilbora ibilaldia Aizkardirekin

Aizkardi mendizale taldeak, *Euskal Herriko hiriburuak uztartuz* egitasmoarekin jarraituz, seigarren sektoreko Artziniega-Bilbo ibilaldia proposatzen du. Izena emateko, 69 44 58 telefonora deitu edo Aizkardiren aretorea joan osteguna baino lehen

URREZKO AIZKORA ▶

IMANOL GARCIA

Bidegoiango frontoian herenegun jokatuak bakarkako Urrezko Aizkoraren kanporaketan zori ezberdina izan zuten eskualdeko bi aizkolariek. Gazteen mailan Joseba Otaegi zizurkildarrak bere lehia aise irabazi zuen. Unai Otaño ibartarrak ez zuen egurrarekin sorerik izan eta ezingo du lehiaketan jarraitu.

Bidegoiango frontoian jende ugari bildu zen eta batez ere eskualdeko aizkolariek txalotu zituzten. Gazteen mailako kanporaketa jokatu zen lehenengo. Joseba Otaegik lehenengo enborretik hartu zion aurrea David Amillano altsasuarrari. Lehia guztia erraz menperatu zuen zizurkildarrak eta 10 minutu eta 40 segunduko denborarekin amaitu zuen lana. Aurkariak ez zuen kolpe arinik erakutsi eta bi minutu gehiago behar izan zituen lana amaitzeko, 12'52ko denbora eginez.

Otaegi ez zen oso baikorra lehiaketaren aurretik, orain asetebe Binakako Urrezko Aizkora irabazi ondoren. «Beldurra nuen azkarragi zelako beste lehiaketarekin, baina pasa honetan pare bat entrenamendu egin ditut eta ondo ikusi dut nire burua», azaldu zion Hitzari Otaegik.

Lehenengo kolpeak urduri eman zituen zizurkildarrak: «Hasieran lotuta atera naiz, urduri, baina gero lasaiago aritu naiz». Azkenean «uste baino errazago» gailendu zitzaion altsasuarrari. Orain Otaegik martxoaren 26an izango du hurrengo hitzordua, Asteasun. Beste aizkolari guztiei bata bestearen atzetik irabazi beharko die finalera iritsi nahi badu.

«Aizkora horrela da»

Unai Otañori zorteak ez zion lagundu eta ezin izan zuen nahi bezala bere indarrak neurtu Javier Aranbarri beteranoarekin. Lehenengo enborrekin hasi eta berehala adarra atera zitzaion eta enbor gainetik salto eginez aizkora aldatu behar izan zuen korrika batean. «Minutu bat edo galdu dut. Adarra handia zen eta aizkora ere aldatzera joan naiz, ona puskatzeko beldurrekin», azaldu zuen Otañok.

Ez ziren hor amaitu oztopenak, laugarren enborrean ere

Otaegi aise aurrera; Otañok zorte txarra izan zuen aurkari

Zizurkildar gazteak erraz irabazi zuen bere kanporaketa eta ibartarrari bi adarrek oztopena zioten bere indarra erakustea



Joseba Otaegi, ezkerrean, eta Unai Otaño, eskubiko argazkian lehen planoan, ahalegin batean. I. GARCIA

beste adar bat azaldu zitzaion. «Hor etsi dut. Lana luzeagoa bazen, agian harrapatuko nuen, baina sei enborretan bi adar ateratzea sekulako aberria

egiten du», zioen ibartarrak. Aranbarriarekin lehia estuan aritzea espero zuen Otañok, baina adarrak jarri ziren erdibidean: «Azaletik ez da ikusten

non egongo diren. Gaur niri tokatuko zait eta hurrengoan agian berari tokatuko zait. Kirol hau horrela da, tokatzen de-
nean pasa egin behar».

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88

Alkiza. Txaleta lursailarekin. Kapritxoz. Informazio pertsonala. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Andoain. Modernoa. Kapritxoz zaharberria. 70 m2. Argitsua. Trastelekua. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.
Andoain. 104 m2 erabilgarriak.

4 logela. 2 balkoi. Gaurkotzeko. Ikuspegiak. Trastelekua. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Asteasu. Txalek adosatua eraiki berria. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Belauntza. Txalek adosatua. 250 m2. 700 m2-ko lursaila. Erdiberria. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Irura. Etxebizitza eraiki berria. Egongela, sukaldia, hiru logela eta bi bainugela. Eguzkitsua. Garajea eta trastelekuarekin. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.
Tolosa. 3 logelako etxebizitza erdi zaharberria. Kanpoaldera. Balkoia. Igogailua. 41.000.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.
Tolosa. Eraiki berria. 85 m2-ko pisua + 2 terraza + garajea eta 100 m2-ko txokoa bainugelarekin. Giltzak irailan. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.
Zizurkil. Zaharberritzeko. Egongela,

sukaldia, 3 logela eta bainugela. Alde ona. 33.000.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.
Zizurkil. 2 logelako pisua guztiz zaharberria. Dena kanpoaldera. 3 balkoi. 33.800.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.
Zizurkil. 95 m2-ko pisu polita. 3 logela. Kanpoaldera. Trastelekua. Garajea aukeran. 39.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Zizurkil. Banako txaleta. 110 m2 eta 3 altuera. 2.500 m2-ko lursaila. Kokaleku ona. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.
Villabona. Eraiki berria. 3 logela. Ezin hobea. Eguzkitsua. Trastelekua. Garajea aukeran. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.
Behar dira: Eskatera handiagatik, pisuak, txalek, baserriak, landa eta hirigintzako lursailak, salgai edo alokairuan.

SALTZAILEA BEHAR DUGU

Hasieran 6 hilabeteko kontratuarekin. B-1 gidabaimena ezinbestekoa da. Enpresaren autoa. Gizarte segurtasun enpresaren kargu. Saltzaile bezala esperientzia izatea baloratuko da. 56 posta kutxa • 20150 Villabona

ARESO ▶ KIROLA

Esku hutsik itzuli dira txapelketatik

Olazabalek eta Beteluk 10 tanto lortu zituzten Aurrerarentzat finalean

JAIONE ASTIBIA

Igande eguerdian jokatu ziren Abadiñoko Matiena pilota lekuan, Euskal Herriko Kluben arteko Pilota Txapelketako finalak, eta Aurrera 10 tantorekin gelditu zen, Danok Bat taldearen 22 tantoren aurrean, txapela lortzerik izan gabe.

Hogeita bi urtez behikoen sailan parte hartu zuen Aurrera elkarteak, Mikel Olazabal eta Patxi Betelu bikotearekin. Ligaxkan lan oso ona egin zuten, eta sei partiduak irabazita —aurkariak agertu ez zirelako bat— iritsi ziren finalera gazte hauek. Aipatzekoa da, Beteluren ordez, Barandarainek jokatu zituela bi partidu, aldaztarrrak eskuetan arazo larri samarrak zituelako.

Hain zuzen ere, igandeko partiduaren nondik norakoan eragina izan zuen Aurrera elkarteak atzelariaren eskuetako minak. Normalean, ikaragarri langilea izan ohi da Betelu, pilotakadak ongi erantzuten dituen, eta aurrelari aurkariari airez sartzea eragotzi eta atzelariari lanak ematen dizkiona. Baina igandekoan, eskuan min zuten eta ez zuten berak egin ohi duen lanik egiterik izan: «Mina hartzen denean, jokoari eustea zail suertatzen da», zioen bere aurreko koa-

droetako lagunak, Olazabalek berak. Hortxe egon zen, beraz, partiduko gakoetako bat. Eta bestea, berriz, «nik ere ezin izan nuen jokoan sartu», argitu zuen aresoarrak, izan ere Danok Bat elkarteak pilotariak, Ortuellakoak ziren, aukerarik ez zioten eman: «Aire guztiak kendu zituzten, pilota paretera hurbildu zuten...», argitu zuen «eta horrela zaila da zerbait egitea», erantsi. Lopez, beste taldeko atzelariaren lana gorai-patu zuen bere aldetik Olazabalek.

Horrela, bada, Amantegi eta Lopezek jantzi zuten txapela igandean, Abadiñon, eta esku hutsik itzuli ziren etxe aldera.

Beste txapelketetan ere

Baina ez zen hori parte hartzen ari diren txapelketa bakarra. Baztango Txapelketa ere martxan baitago eta dagoeneko, bihar bertan dute jokatzekoa, ligaskako lau partidutatik bigarren: Doneztebeko pilota lekuan, 19:30etik aurrera.

Hau bukatutakoan, lehendabiziko aldiz GRAVN Txapelketa eta Elgetakoan ere parte hartzekotan da Mikel Olazabal aresoar pilotari gaztea. Asperekin aurre-kontratua egina du eta bere pilotari ibilbidea egiten ari da pixkanaka.

LEITZA ▶ KIROLA

Berriz ere Arkixkilen jokatzetik gabe, elurra dela medio

Igandean berriz ere jokatzetik gabe gelditu ziren Aurrerakoak, lehengo elurraren gainean, beste aldi bat ere egin zuen eta. Asteazken zehar, ura botaz eta saiatsu izan dira elurra urtzen, baina asko gogortuta zegoen, koilatuta, eta nekez kendu zitekeen. Lehengoak aski ez zirela, gainera elur berria egin zuten. Horrela bada, duela bi jardunalditako partidua bertan behera gelditu zen moduan, kasu hartan Aralar Mendiren aurkakoa, asteburu honetan Gazte Berriarekin jokatzekoa zuten. Uhartearakildarrena hilaren 24ean berreskuratuko dutela eman dute jakitera. Baina azken honetakoari dagokionez, ez dute data zehatzik oraindik. Hiru partidu ditu berreskuratuta beharrak Aurrerak.



Atzo arratsaldean, oraindik ere elurtuta jarraitzen zuten Arkixkil futbol zelaiak. JAIONE ASTIBIA

LEITZA ▶ GIZARTEA

Gazte asanbladaren kamiseta lehiaketa

Leitzako Gazte Asanbladak kamisetak egiteko asmoa duela eta, bertan agertuko den marrazkiaren eta lemaren lehiaketa antolatu du eta dagoneko, lanak aurkezteko epea ere irekita dago, martxoaren 11 arte. Lanak Torrea tabernan utzi behar omen dira, atzekaldean izena jarrita. Proposamenak, Din A-4 tamainako orri banetan aurkeztu behar omen dira eta, aditzera eman zuten, «autogestioa eta gaztedia gai hartuta, edozein ideia aurkez daiteke», zioten. Lanak egiteko teknika ere, norberak aukeratzeko utzi dute: «errotuladoretz, ordenagailuz... beti ere aukeratzeko kontutan hartuko den ezaugarria izanen da kamisetara pasatzeko erraztasuna ere», nabarmendu nahi izan zuten, bestalde. Aurkezten diren lan guztien artean aukeraketa, kopuruaren arabera egingen omen dute, edo erakusketa egin eta irizkiak jasoz, edo asanbladako kideen artean. Edozein moduz, irabaztunak sari ederra jasoko duela ziurtatu zuten.

LEITZA ▶

Kroserako, ume eta gurasoentzat prestaketa saioak

Denok bat guraso elkarteak, apirilaren 10ean egiteko den Herri Krossean parte hartu nahi duen guztiarentzat, prestaketa saioak antolatu ditu. Astelehenean eta asteazken arratsaldetan, 18:00 etan elkartzeko dira, Erleta eskolako atarian eta han egiten dituzte ariketak. Opor egunean ere hantxe izanen dira, apirilaren 6a arte.

hitza **txokoa** lagunena

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko martxoaren 8a, asteartea ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alzaboskietak, Adura, Abichu, Añeta, Alkiza, Alzo, Amotzeta, Ansoa, Anso, Balamain, Belduntza, Berangui, Berrota, Etxauri, Herrialde, Iturrak, Naldigaitza, Nara, Lertxundi, Lertxundi, Oñativia, Oñativia, Tolosa, Villabona, Zuzaki, besterik: Leizaldekoko Euzkara Bazarrean

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurilaritza.
Kultura Saila

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

07

hotzena

02

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALARREN



Guardetxe: bai
Albi: bai



Pagomari: bai
Igaratza: bai



HITZA-KO BEZEROEN
ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Festa Batzordearen bilera 19:30ean udaletxean.
Tolosa. Baigorri-Donibane (Behe Nafarroa) mendi irteera antolatuta du Alpino Uzturrek iganderako. Irteera Gorosabeletik 7:00etan. Izen-ematea, elkartean (Gudari 5). 943 65 27 89.
Tolosa. Garizumako hitzaldia antolatuta du Santa Maria parrokiak areto nagusian 16:00etatik 20:00etara (ordubetetik ez da luzatuko).
Tolosa. Matxin Labaien koadroak Lanbroa tabernan.
Tolosa. Mikel Azpilikuetaren koadroak Aranburu Jauregian.
Villabona. 50. aitxaldi, 50. galdera hitzaldia eskainiko du Iñaki Perurenak Gurea erakustokian 20:00etan.
Villabona. Artziniega-Ganekogorta-Pagasarri-Bilbo irteera igandean, Aizkardik antolatuta. Izen-ematea 943 69 44 58 telefonoan edo lokalera azaldu ostegunean 21:00etan.

ZINEMA

Tolosa. *Solo un beso.* Leidor zineman 19:30ean eta 22:30ean. Ikuslearen eguna.

Irribarrez bete zen Leidor

TOLOSA ▶ Hurrez eta gurasoez bete zen larunbatean Leidor zinema Pirritx eta Porrotx pailazoaren gorabeherak, kantak eta dantzak ikusteko



Arrantzan aritu ziren Pirritx eta Porrotx itsasertzeko kai batean. JAIONE ASTIBIA

ERREDAKZIOA

Beti bezala, arrakasta handia lortu zuten Pirritx eta Porrotx pailazoek larunbatean Leidorren. Zinema bete zuten jendez eta irribarrez. Txikiak eta handiak ederki pasatu zuten.

Itsasertzeko kai batean zuden Pirritx eta Porrotx. Kainaberarekin arrantzan. Ogitartekoa arrantzatu zuten. Ez dago gaizki meriendarako!

Handik pixka batera atzean zuten kupeletik neska bat agertu zen. Arabiarra edo. Ez zekien euskaraz. Hari ulertzeko eta gure hizkuntza erakusteko nahiko komeria izan zuten bi pailazoek.

Leidorreko eserlekuetatik begira haurrak eta bere gurasoak. Aretoa beteta. Nahiko irribarre eta algara egin zuten eszenatokiaren gaineko pertsonaiek egindako xelebreekierkin. Kanta eta dantza ere eziren faltatu, noski. Arratsalde pasa izan zuten denek. Irribarrez bete zuten Tolosako zinema.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Intxa Adurriaga (Txarama).
Gaur 2 urte. Zorionak familiaren partetik. Gora marboak 8!



IGOR ITXIALDIAN

Zuek barrutik eta guk kanpotik, jo ta ke preso guztiak ebean izan arte. Torreko lagunak.



URTEMUGA

Xebas 28. urtemuga
Ibartarrok eta Euskal Herriak ez zaitugu ahaztuko.

HITZA, zorion agurren

tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletzeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

Berdintasunean oinarrituriko gizarte bateruntz!

Martxoaren 8a gailendu dadila urte osoan zehar

Martxoaren 8a emakumearen nazioarteko eguna



Tolosako Udala